

| EBALUATU ZEUREA

Test soil honen bitartez jakin ahal izango duzu zein den zeure abiapuntua, bai eta ezagutuko ere, negozio-asmo bat abiarazi aurretik zeintzuk diren zeure asmoaren alderdi sendoak eta zeintzuk ahulak. 22 galdera hauen bitartez, negozio bati ekiteko ekintzaileak zer ahalmen duen jakingo duzu:

1. Zergatik sortu nahi duzu enpresa bat? (Zeure arrazoiak hobeen islatzen dituzten erantzunak aukeratu)

1. Arrakastaz fabrikatu nahiz salduko lukeen, eta gainera, nire asmoak burutzen lagunduko lidakeen produktua edo zerbitzua ezagutzen dut
2. Hori da neure inguruan betidanik ezagutu dudana
3. Erakunde edota talde bateko buru izan nahi dut
4. Ez dut menpekotasun ekonomikorik nahi
5. Neure ondarea lortu nahi dut
6. Enpresaren alderdi sortzaileak erakartzen nau
7. Soldatapean baino diru gehiago irabaz dezakedala uste dut
8. Ez dut laket enplegatutaz izatea
9. Ez dago lanpostua lortzeko beste modurik
10. Jarduera berri bati ekin nahi diot

2. Zertan aritu zara lanean orain arte?

11. Sektore publikoan
12. Sektore pribatuan
13. Ez dut sekula lanik egin

3. Sektore pribatuan jardun baduzu: zu al zinen negozioaren jabea?

14. Bai
15. Ez

4. Zein lanpostutan?

16. Zuzendaritzan
17. Tarteko buruzagitzan
18. Operari

5. Zure senitartekoen zein ingurukoen artean, ba al da zure asmoa ontzat eman duen enpresabururik?

- 19. Bai
- 20. Ez

6. Egin al duzu enpresa bat aurrera nola eraman jakiteko ikasketarik?

- 21. Ez, baina badut eskarmentua
- 22. Badut informazio teorikoa, ez, ordea, eskarmenturik
- 23. Badut informazio teorikoa baina eskarmentua ere
- 24. Ez dut ez eskarmenturik ez informazio teorikorik baina enpresa-jarduera bera izango dut irakasle

7. Sarritan, enpresan, jardun ahala hartu behar izaten dira erabakiak, eta horrek...

- 25. Kezkatu egiten nau
- 26. Ez nau kezkatzen

8. Ohituta zaude erantzukizunei aurre egiten?

- 27. Gauzak neronek egitea atsegin dut
- 28. Behar izanez gero, nire gain hartzen ditut ardurak, baina nahiago dut beste norbait ardura dadin.

9. Izan al duzu inor zeure zuzendaritzapean, enpresa jardueran izan ez bada ere?

- 29. Bai
- 30. Ez

10. Zenbat lagun?

- 31. 1 eta 10 artean
- 32. 11 eta 30 artean
- 33. 30 baino gehiago

11. Enpresa barruko gauzak ondo ordenaturik eta antolaturik egon behar al dute?

- 34. Plan bat egin eta hari eustea atsegin dut, gertatuak gertatu
- 35. Plana beharrezkoa iruditzen zait, baina malgutasunez jokatu behar da
- 36. Negozio batean, jardun egin behar da; ordena ez da garrantzitsuena

12. Enpresaburuak saiatua izan behar al du?

- 37. Bai; gaiak burutu egin behar dira, eta ordura arte ekin
- 38. Gehienetan, hasitakoa burutu egiten du, korapilatzen ez bada behintzat
- 39. Batzuetan, inoren esku uztea komeni dela uste dut

13. Negozioari ekiteko behar beste diru aurreztu duzula uste al duzu?

- 40. Ba
- 41. Ez, baina erraz lor dezaket
- 42. Ez, baina laguntza ofizialak eska ditzaket
- 43. Ez dakit benetan zer kostu izan dezakeen negozioa abiarazteak.

14. Gustuko al duzu talde lanean jardutea?

- 44. Atsegina eta sortzailea da
- 45. Taldeak traba egiten dio erabaki-hartzeari

15. Esanekoa al zara?

- 46. Bai. Ez dut pentsatzen dudanaren bestelakorik esaten
- 47. Ingurumarien arabera jarduten dut; batez ere, hurkoa egoeren arteko aldea bereizteko gauza ez bada

16. Ba al duzu bidaiatzeko eragozpenik?

- 48. Bai
- 49. Ez

17. Ba al dakizu atzerriko hizkuntzarik?

- 50. Bai
- 51. Ez

18. Zer iritzi duzu bazkideez?

- 52. Komenigarria izan daiteke beste norbaitekin elkartzea
- 53. Bazkideek arazoak besterik ez dituzte ekartzen

19. Enpresa munduan gertatzen diren nobedadeak ezagutzea...

- 54. komeni da
- 55. ezinbestekoa da
- 56. Ondo ezagutzen dut sektorea, eta ez dut ikasteko askorik

20. Garrantzitsua al da, zure ustez, enpresa sortzeko proiektuari buruz norbaiti galdetzea?

- 57. Ez, asmoa kopiatu diezadakete eta
- 58. Bai, beste ikuspuntu bat eman diezadakete eta
- 59. Bai, oker ibili naitekeelako, eta neure asmoa ez izan nik uste bezain ona

21. Jarduerari etekina ateratzea...

- 60. helbururik behinena da
- 61. Enpresa jarduera dirua irabazteko baino ez da, jakina
- 62. Bizitzeko behar dudana lortzearekin aski dut

22. Osasun sendoa duzu?

- 63. Bai
- 64. Ez

Erantzunen balorazioa

Hona hemen erantzun bakoitzari egokitu zaizkion balioak:

Erantzuna	Puntuak	Erantzuna	Puntuak	Erantzuna	Puntuak	Erantzuna	Puntuak
1	4 puntu	17	3 puntu	33	5 puntu	49	3 puntu
2	Puntu 1	18	Puntu 1	34	2 puntu	50	3 puntu
3	2 puntu	19	2 puntu	35	4 puntu	51	0 puntu
4	3 puntu	20	0 puntu	36	puntu 1	52	2 puntu
5	3 puntu	21	3 puntu	37	2 puntu	53	0 puntu
6	2 puntu	22	2 puntu	38	0 puntu	54	2 puntu
7	3 puntu	23	5 puntu	39	Puntu 1	55	3 puntu
8	3 puntu	24	0 puntu	40	5 puntu	56	0 puntu
9	0 puntu	25	0 puntu	41	2 puntu	57	0 puntu
10	Puntu 1	26	2 puntu	42	2 puntu	58	2 puntu
11	Puntu 1	27	3 puntu	43	0 puntu	59	4 puntu
12	3 puntu	28	0 puntu	44	2 puntu	60	4 puntu
13	0 puntu	29	3 puntu	45	2 puntu	61	2 puntu
14	5 puntu	30	0 puntu	46	3 puntu	62	1 puntu
15	0 puntu	31	1 puntu	47	1 puntu	63	3 puntu
16	5 puntu	32	2 puntu	48	0 puntu	64	0 puntu

25 puntu baino gutxiago: tamalez zure trebetasunak ez dira enpresaburu izateko egokienak.

25 eta 40 puntu artean: gutxieneko trebetasunak dituzu. Hala ere, zure ezagutzak eta gaitasunak osatu beharko zenituzke, edo beste kide batzuk bilatu, osatzeko.

40 puntu baino gehiago lortu badituzu, ongi prestatua zaude enpresaburu izateko. Zortetik onena opa dizugu. Ez ahaztu, ordea, enpresa mundua bizkor aldatzen dela eta etengabe aditu behar zaiola informazioari.